

2022ko Euskal Herriko  
LAN-ISTRIPUEI BURUZKO

*Txostena*

2023ko  
urtarrila



## **AURKIBIDEA**

0. Sarrera .....	3
1. Ondorio nagusiak .....	4
2. Lan istripu hilgarriak .....	5
Datu ofizialen inguruko irakurketa .....	7
3. Lan istripuak .....	8
4. Lan istripu arinak eta larriak .....	11
5. Laneko gaixotasunak .....	12
6. Datuon atzean emakumeon* errealitatearen ikusezintasuna dago .....	13

## 0. SARRERA

2023. urtea krisi ekosozial betean hasi dugu. Langileon artean ziurgabetasun sentipena gailendu da, geure egoeraren inguruan ziurtasunak argi zeuden testuinguru batean: prekaritatea eta pobrezia gero eta hedatuago, zerbitzu publikoak behar bezala garatu gabe eta pribatizazio eta eraispen fasean sakontzen, aberastasuna gero eta esku gutxiagotan pilatzen eta patronala egoera hori mantendu nahian negoziazio kolektiboa blokeatuz eta langileriaren pobretze egoera horretan sakonduz.

Izan ere, langileon prekarizazio prozesua aspalditik badator ere, 2008ko krisiaren ondoren Espainiako gobernuak ezarri zituen erreformek are eta gehiago okertu zuten langileon egoera. Hamarkada bat baino gehiago igaro den honetan, ageriak dira orduan ezarri ziren neurri horien ondorioak: kapitalaren eta langileriaren arteko aberastasunaren banaketa desorekatuagoa, langileriaren artean gero eta dualizazio handiagoa, sexu-genero arrakalaren mantentze estrukturala, pobrezia hedapena edota prekarizazio modu desberdinen agerpena. Hori guztia enplegua gainditzen duten lanen eta zaintza ardua nagusiki oraindik ere emakumeon\* gain dagoen bitartean, horrek dakartzan ondorio guztiekin: lan jardunaldi amaigabeak, eginiko lanaren aitortza sozial eta ekonomiko eza edota lan osasunean izan ditzakeen ondorioak.

Egoera horiekin egin behar izan genion aurre pandemia testuinguruari, eta berdintsu jarraitzen dugu krisi ekosozialaren ondorioak inoiz baino gordinago bizitzen ari garen momentu honetan. Krisialdi klimatikoari lehengaien agortzea gehitzen zaion momentu honetan, geopolitika mundu osoko langileon bizitza ari da markatzen, blokeen arteko lehia ekonomikoaz harago gerra elikatuz batean eta bestean, tartean Europan gertatzen ari den Ukrainako gerra.

Egoera horrek, besteak beste, prezioen igoera izugarria ekarri du eta soldatak ez dira ari igotzen neurri berean, langileriaren pobretze orokorra eraginez. Azken urteetako lan gatazka gehien ari da pizten, langileak euren eskubideen defentsan borrokatzeko prest daudela ari dira erakusten; kasu askotan, ordea, patronalak urratsik eman gabe jarraitu nahi du.

Egoera hori nahikoa ez balitz bezala, Euskal Herriko arduradun politikoek, zerbitzu publikoen pribatizazioarekin jarraitzeko hautu garbia egina dute, osasungintza publikoaren eraispena izanik adibiderik garbiena.

Mutualitateak dira honen adibide argia. Langileriaren osasuna kudeatzen duten entitate pribatuek, patronalaren elkarteak izanik, langileriaren osasuna bermatu beharrean enpresen interesak defendatzen dituzte. Honela, txosten honetan ikus daitekeenez, istripuen eta batez ere laneko gaixotasunen datu errealak ezkutatzen dituzte izugarriko azpierregeroak sortuz. Hau gutxi balitz, gero eta eskumen gehiago ari dira eurenganatzen, kontingentzia arrunten kudeaketa zein datu klinikoaren eskuratzea besteak beste. Mutualitateak beraz, osasun sistema publikoaren pribatizazioaren abanguardia dira eta LAB sindikatuaren jo puntu nagusietakoa. Ez dugu etsiko mutualitateak desagerrarazi arte. Mutualitateen funtzioak gizarte segurantzak berreskuratu behar ditu eta hauen ondasuna funtse publikora itzuli. Bide horretan gero eta lantoki gehiagotara eramaten ari garen neurria indartuko dugu: laneko zein arruntak diren kontingentziak gizarte segurantzak kudeatu ditzan, hain zuzen.

Laburbilduz, kapitalismoa ez dago bitzta sostengatzeko eraikia, gutxi batzuen interesak defendatu eta horien aberastasuna metatzeko baizik. Horrek, ondorio zuzena du lan osasunean.

## **1. ONDORIO NAGUSIAK**

- Lan istripuek gora egin dute eta ondorioz, hildako langile kopuruak ere gora egin du aurreko urtean. LABentzat aurreikusi zitekeen egoera bat da, ekiditeko inolako neurririk jarri ez delako.
- Datuen analisisan ikus daiteke sektore jakin batzuetan errazagoa dela istripuz hiltzea: basogintza, eraikuntza, altueratako lanak, industria, garraioa, etab. Sektore hauetan, nahiz eta baduten araudi berezia, hilkortasun tasa nabarmen altuagoa da. Bistan da neurrien inplementazio faltak datu latzak uzten dizkigula urtez urte. Aipatzekoa da araudia ere egokitzen joan dela eta zorrotzagoa bilakatu dela sektore arriskutsuenetan, halabaina, ohikoa da patronalak ez betetzea, eta administrazioak ezer gutxi egin du berau kontrolatzeko, hortik emaitza hauek.
- Laneko gaixotasunek aintzat hartu gabe jarraitzen dute, krisialdiaren ondorio psikosozialak eta prekaritatean areagotzeak osasunean sortzen dituen kalteak ez dira aitortzen.
- Salatu nahi dugu une honetan ez dagoela baja bakar bat ere aitortua faktore psikosozialengatik, kontingentzia profesional bezala. Patronalaren mutualitateak kontrolatzeko organo errealik ez dagoelako gertatzen da hau.
- Lantoki osasungarriak lortzetik eta emakumeen\* osasunaren berezitasunak kontuan hartzetik oso urrun gaude oraindik. Osasun-sistema publikoak osasun-kalte guztien prebentzioa eta erreparazioa hartu behar ditu bere gain, bai enpleguan, bai enplegutik kanpo ere. Emakumeok\* pairatzen ditugun gaixotasun asko ikusarazi behar ditugu, gaur egun estatistiketan agertzen ez direnak, baita enpleguan eta bizitzan jasaten dugun prekaritatearen, arrisku psikosozialen, indarkeriaren eta pobreziaren ondorio direnak ere.
- Lan istripuak eta laneko gaixotasunak bi arrazoi nagusirengatik gertatzen dira: lanaren prekaritatea eta prebentzio neurri egoki falta.
- Lan baldintzak gero eta prekarioagoak dira. 2023ko otsailaren 10ean 27 urte betetzen dira Laneko arriskuen prebentziorako legea indarrean sartu zenetik. Hasieratik izan du betetze maila eskasa eta krisialdietan zehar okerrera egin du, prebentzio neurrien aplikazioan atzerapauso nabarmenak eman dira. Hau, argi ikusten da istripuen ezaugarriak aztertzen baditugu. Honi gehitu behar zaio, eragin negatibo zuzena duten mutualitateei gero eta eskumen gehiago eman izana, langileon osasuna gero eta gehiago pribatizatuz.
- Lan baldintza eta prebentzio neurri egokiekin langileak ez lirateke lanean gaixotuko edota gehiegitan gertatzen den moduan, hilko. Noski, honek enpresen etekinak murriztea dakar. Zein da, beraz, ondorioa? Langileon lan osasunari salneurri oso merkea jartzen zaiola.

- Hau oso larria da eta onartezina izan beharko luke edozein gizartetan, zer esanik ez, bere burua modernotzat duen batean, are gehiago ikusten ari garenean aberastasuna egon badagoela baina gero eta poltsiko gutxiagotan pilatzen dela.

- Instituzioek indarkeria honen aurrean beste aldera begiratzen dute, ikuskaritzak ez du bere lana betetzen. EAEn, Osalanek eta Nafarroako Foru Erkidegoan, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) lan osasuneko plan estrategikoak egin dituzte. Orriak eta orriak idazten dituzte neurri eraginkor bakar bat hartu gabe, arazoen muina lantzeko erabaki politiko bakar bat hartu gabe.

- LABek lantokietan lan osasunerako eskubidea bermatzea bere lehentasunen artean dauka eta horren alde lanean jarraituko dugu. Borroka honen mesedetan indartuko ditugun lerroak dira:

- Lan istripuen erantzunen eta osasun galeren kontrako dinamikak sakontzen jarraitu.
- Prekaritatearen kontrako borroka indartu eta ekintza sindikal berrituan lan osasunaren aldagaia txertatu.
- Mutualitateen kontrako borroka indartu. LABek bere langileak osasun publikora bideratuko ditu, alegia, gaixotasun arruntak eta lanekoak ez ditu mutualitateetara bideratuko. Eta lantokietan borroka honekin jarraituko dugu, dagoeneko hainbat enpresa dira urrats hori eman dutenak.

## 2. LAN ISTRIPU HILGARRIAK

Honela, LAB sindikatuak 2021ean lan istriputan zenbatutako 68 hildakoak 69ra igo dira 2022ean. 69 hildako hauetatik 43 Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) gertatu dira, 20 Nafarroako Foru Erkidegoan (NFE), 2 Ipar Euskal Herrian eta azken 4ak, atzerrian hildako Euskal langileak lirateke. Kopuru hau, ezagutza izan dugun istripu hilkorrena gehiago ere izan baitatezke.

Lan istripu hilgarriak	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
ARABA	40	30	37	3	5	6	6	18	10	9
BIZKAIA				29	20	30	16	24	22	15
GIPUZKOA				8	16	10	9	17	16	19
NAFARROA	12	9	15	13	14	21	15	11	20	20
IPARRALDEA	0	0	3	2	0	1	0	3	0	2
<b>EUSKAL HERRIAN</b>	<b>52</b>	<b>39</b>	<b>55</b>	<b>55</b>	<b>55</b>	<b>68</b>	<b>46</b>	<b>73</b>	<b>68</b>	<b>69</b>

\* LABek ekoizitako datuak

Azken hamarkadan, 2013tik 2022ra, 580 langile hil dira Euskal Herrian.

Istripu hilgarrien zehaztasunetan sartuz:

- Ez traumatikoak: 23 hildako, %33.
- Kolpeak/harrapaketak: 18 hildako, %26.
- Altueretatik eroriak: 11 hildako, %16.
- *In itinere*: 6 hildako, %8,7.
- Azpikontratatuak: 6 hildako, %8,7 (gutxienez, zailtasunak izan ditugu jakiteko).

Sektore kritikoak :

- Basogintza: 4 hildako, %6. hemen apurtzen dira marka guztiak sektorearen langile kopurua aintzat hartuta. Dagozkion CNAEarekin Hego Euskal Herrian altan emanda 1.000 langile inguru daude.
- Industria: 22 hildako, %31,8.
- Eraikuntza: 20 hildako, %28,9, horietatik sustapen publikoko obretako hildakoak bi izan dira.
- Garraioa: 9 hildako. %13.

Datu hauen aurrean egiten dugun hausnarketa argia da, lanbide jakin batzuetan bizia galtzea askoz errazagoa da. **Basogintzak**, egur ustiapenak, esaterako, duen langile kopururako eragiten duen hildako tasak marka guztiak apurtzen ditu. Zenbaki ofizialak aintzat hartuta ere, Osalanek berak onartzen du eraikuntzan baino hiru bider handiagoa dela hilkortasuna lehen sektorean, eta basogintzarena zehazki, askoz handiagoa. Sektoreko patronalak 18.000 langile dituela dio, kopuru guztiz puztua, honetarako zerrategietako eta hainbat sektoretako langileak barnebiltzen dituzte. Jardueraren CNAE-ei zehaztasunez begiratuta, ikus dezakegu Hego Euskal Herrian 1.000 langile baino gutxiago daudela altan emanda eta hauetatik 4 hil dira 2022an.

Eraikuntzak 76.000 langile izanik 20 hildako eragin ditu eta basogintzak 1.000 langilarekin lau hildako. Beraz, eraikuntzak baino, hau da, bigarren sektore hilgarrienak baino, 15 aldiz hilgarriagoa da basogintza edo egur ustiapen aktibitatea.

Arrisku faktore hau, batez ere, basogintza eredu intentsiboan ematen da Gipuzkoa eta Bizkaian, bideragarritasun ekonomiko eza eta lan harreman prekarizatuak tarteko. Lanaldi bukaezinak, lur ez egokian edo malkartsuan, tresneria zaharkitua, formakuntza falta, erritmo altuegiak, administrazioaren kontrol erreal eza, aldundien eta udalen utzikeria, etab.

Duen pisuarekin, **eraikuntzak** erakusten digu jarraian aupegirik beltzena, izan ere 69tik 20 langile bertan hil dira.

Urteak joan urteak etorri, nahiz eta araudiaren egokitzapenak egon diren, altueretako erorketek sortzen dituzte hildako gehien. Aztertutako istripu batean ere ez ziren segurtasun neurriak errespetatzen. Neurri kolektiboak ez ziren egokiak edo ez zeuden eta besterik ezean, babes pertsonalik ez zen erabiltzen.

Behin eta berriz salatu dugu obran prebentzioa, kasurik hoberenean paperean geratzen dela. Ez da baliabide prebentiboaren presentzia bermatzen eta izendatuta dagoenean, askotan bere funtzioak ez dute lan osasunarekin zer ikusirik.

Sustapen publikoko obren kasuak aipamen berezia merezi du, bereziki obra megalomanoetan. Izan ere, AHTaren obrak, Nafarroako zatian, beste hildako bat eragin du. Hemen administrazioaren utzikeria agerian

geratzen da non lan osasuneko araudiaz gain, beste hainbat neurri dituzten kontratazio pleguak bezala edo ogasuna bera, enpresei lan osasun betebeharrak betearazteko. Ez dute ez bata ez bestea ezartzen.

**Industrian** 69 langiletik 22 hildako jazo dira, hemen nahiz eta makina eta gailuen araudia zorrotza izan, ez da ia inon betetzen eta kolpe eta harrapaketak dira arrisku faktore nagusi.

**Garraio sektorean** aipamen berezia egin behar dugu. Sektorean aurten ezagutu ditugun istripu hilgarrien %75 arazo kardiobaskularrek eragin dituzte. 9 hildako izan dira lan istripuz, horietatik 6 ez traumatikoak. Honek laneko arrisku faktore hau azalarazten ditu: estresa, lan eredu sedentarioa edota lanaldi luzeak. Finean, bizitza osasuntsua eramatea eragozten duen lanak ere hil egiten du. Sektoreko istripuak, trafiko istripu moduan ezkutatu nahi izaten dituzte, baina datuen analisiek benetako kausak azalarazten dituzte.

**Ez traumatikoen** atzean laneko faktoreak gero eta nabarmenagoak dira (garraioa, industrian katean lanean, etab.). Garraio sektorearen adibidean aipatu dugun eran, nahiz eta Osalan eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) heriotza naturalizat hartu nahi izaten dituzten, nabarmena da arrisku faktoreak dauden lanetan heriotz tasak areagotzen direla.

**In itinere istripuek** ere badute trafiko istripuek haragoko faktorerik ere. Mugikortasun behar handiek, ibilgailu pribatua erabiltzeko beharra garraio publikorik egon ezean, ibilgailu pribatua mantentzeko gaitasun ekonomiko mugatua, lanaldi luzeen ostean nekeak eragindako istripuak, txandakotasuna, patronalaren neurri eza lan arrisku honekiko, administrazioaren utzikeria.

**Azpikontratazioa**, bere horretan, arrisku faktorea da. Prebentzio neurriak ezartzeko zailtasun nabarmenak sortzen ditu. Errazagoa da azpikontratetn istripua izatea muga horiengatik.

## DATU OFIZIALEN INGURUKO IRAKURKETA:

Datuak xehe eta aztertzen hasi aurretik, adierazi behar dugu Hegoaldeko administrazioek eskaintzen dituzten datuak patronalak ekoitziak direla. Patronalaren mutualitateek, Delta sistema erabiliz, Osakidetza eta Osasunbideari jakinarazten die kontingentzia profesionalen intzidentzia. Beraz, Patronalak jokalaria eta epaile lanak egiteko aukera du eta honela, datuak nahi eran faltsutzeko aukera paregabea du. Soilik honela ulertu dezakegu administrazio publikoek lan heriotzen aurrean duten azpierrejistroa.

Heriotza istripuen konparaketa

	2022		2021		2020	
	Datu ofizialak	LAB	Datu ofizialak	LAB	Datu ofizialak	LAB
ARABA	5	9	10	10	5	18
GIPUZKOA	14	19	12	16	6	17
BIZKAIA	7	15	13	22	16	24
NAFARROA	12	20	13	20	11	11
IPARRALDEA	-	2	-	0	-	3
<b>GUZTIRA</b>	<b>38</b>	<b>69</b>	<b>48</b>	<b>68</b>	<b>38</b>	<b>73</b>

### 3. LAN ISTRIPUAK

	Baja gabeak			Arinak			Larriak			Hilgarriak		
	EAE	Naf	Guztira	EAE	Naf	Guztira	EAE	Naf	Guztira	EAE	Naf	Guztira
2013	45.159	13.251	<b>58.410</b>	27.769	6.410	<b>34.179</b>	157	57	<b>214</b>	40	12	<b>52*</b>
2014	45.790	12.302	<b>58.092</b>	27.909	6.874	<b>34.783</b>	156	55	<b>211</b>	30	9	<b>39*</b>
2015	50.828	12.478	<b>63.306</b>	30.012	7.599	<b>37.611</b>	176	62	<b>238</b>	37	15	<b>55*</b>
2016	51.675	13.448	<b>65.123</b>	31.397	8.828	<b>40.225</b>	165	67	<b>232</b>	40	13	<b>53*</b>
2017	48.634	13.806	<b>62.440</b>	33.333	9.290	<b>42.623</b>	199	59	<b>258</b>	41	13	<b>54*</b>
2018	47.110	13.670	<b>60.780</b>	34.181	9.816	<b>43.997</b>	217	66	<b>283</b>	46	21	<b>67*</b>
2019	46.137	14.392	<b>60.529</b>	36.870	12.174	<b>49.044</b>	206	97	<b>303</b>	31	15	<b>46*</b>
2020	36.204	11.010	<b>47.214</b>	29.979	9.948	<b>39.927</b>	196	77	<b>273</b>	59	11	<b>70*</b>
2021	38.282	12.781	<b>51.063</b>	34.606	11.455	<b>46.061</b>	210	79	<b>289</b>	48	20	<b>68*</b>
2022	36.693	X	<b>36.693*</b>	36.573	11.926	<b>48.499</b>	256	102	<b>358</b>	43	20	<b>63*</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>446.512</b>	<b>117.138*</b>	<b>563.650*</b>	<b>322.376</b>	<b>94.320</b>	<b>416.949</b>	<b>1.938</b>	<b>721</b>	<b>2.659</b>	<b>415</b>	<b>149</b>	<b>564*</b>

Osalan eta Gizarte Segurantzak eskeinitako datuak

\* 2022. urteko datuak falta dira

\* Hildakoen kopuruarena LABen datua da, kasu honetan atzerrian hildako euskal langileak ez leudeke.


Azken 10 urteotan, hau da, 2013tik:

- Lan ezbehar arinak 14.000 inguru handitu dira eta larriak %63.




- Egunero 270 lan istripu jazo dira. Sistemak, egunero, 270 istripu eragin ditu. Izan ere, bost minutuero lan istripu bat gertatzen da. Istripu horietako 156k ez dute bajarik eragin, eta 114k egun bat baino gehiago iraun duen ezintasuna eragin dute. Sei egunean behin istripu hilgarria gertatzen da.
- Lan istripu hilgarriek, 2014ko urtearekin konparatuz gorakada itzela izan dute, %61; arinak %41 eta larriak %67 igo dira. Beraz, azken hamar urteotan ia-ia tarte guztietan istripuak igo dira, izan ere, jaisten diren bakarrak baja gabeak dira, hau da, errazago ezkutatu daitezkeenak.

### LAN ISTRIPU ARINAK




### LAN ISTRIPU LARRIAK



Grafika hauek ikusita, ez da urtebeteko aldaketa. Joera argi baten aurrean gaude.


OSALAN edo NOPLOIk egindako programek inflexio punturik eragiten dute?

### LAN ISTRIPU HILGARRIAK



Grafiko honetan ikus daitekeenez, istripu hilgarrien kopurua ia bikoiztu egin da 10 urtean (2014. urtean 39 eta pasa den urtean 69) eta, LABetik behin baino gehiagotan salatu dugunez, langile-klasearen osasuna eta bizitza, neurri batean, zortearen (gora-beherak) araberakoa bada ere, argi dago lan-istripu hilgarriak gorantz doazela, ez da aldaketa puntuala, baizik eta joera argia. Enplegu- eta lan-baldintzetan istripu horiek gertatzeak, prekaritatea handitzearekin zerikusia du (kate-azpikontratazioa, behin-behinekotasuna, eskubideak galtzea, etab.).

Gora-behera horiek hobeto ikus daitezke datuak herrialdeka banatzen baditugu:



Diogun bezala, gora-beheren grafika hau urtetik urtera igo eta jaitsi egiten da, aldakuntza txikiekin baina goranzko joera argiarekin, adierazten diguna da ez dagoela langile klaseari bizitza kostatzen zaion errealitate horren aurrean jarduteko planik.

#### 4. LAN ISTRIPU ARINAK ETA LARRIAK

Lan heriotzak izkutatzea ez da erraza, sindikatuok baditugulako baliabideak hauek zelatzeko, heriotzak albiste izan ohi direlako. Aldiz istripu arin eta larriak ezkutatzea askoz errazagoa da eta hemen mutualitateen erabakien eskuetan dago datuen iruzurra.

Honela, Patronalak EAEko administrazioari helarazitako datuen arabera, 2021ean 36.364 bajadun istripu egon ziren, aldiz, 38.282 baja gabeko istripu jakinarazi ziren.

2022an, bajadun istripuak areagotu egin dira, 38.186 bajadun istripu, hain zuzen ere. Jakinarazi diren baja gabeko lan istripuak 36.393 izan dira.

Lan istripuak EAE n	2022	2021
Bajadunak	38.186	36.364
Bajarik gabeak	36.693	38.282
<b>Guztira</b>	<b>74.878</b>	<b>74.646</b>

Beraz, ikus dezakegu datu ofizialek lan istripuen gorakada %0,31ean kokatzen dutela baina hauen larritasuna nabarmen igo dela. Honela, bajadun istripuak %5 igo dira istripuen larritasuna areagotu dela agerian utziaz.

EAE n 2022an mutualitateek jakinarazitako istripu horietatik soilik 256 izendatu dituzte larri bezala. Honen atzean irakurketa interesatua dago eta larritasuna behar enpresarialen arabera izendatzen da. Larriak, honela kalifikatzen dira mutualitateek larritasuna ezkutatzeko aukerarik ez dutenean soilik.

#### **Nafarroako Gobernuak hileroko datuak eta hiruhileko txostena argitaratzeari utzi dio:**

laz ere salatu genuen bezala, Nafarroako Gobernuak urtean zehar lan istripu eta gaixotasunen datuak argitaratzeari utzi dio pandemia ostetik. Soilik, urteroko ezbeharren txostena ekoizten jarraitzen du, uda atarian argitaratzen duena. Honela, lanketarako erabiltzen ditugun datuak gizarte segurantzak estatu mailan eskainitakoak dira. Azpimarratu behar dugu datu hauek ere mutualitateek ekoiztiak direla, beraz patronalek euren beharren arabera manipulatu eta ezkutatutako datuen aurrean gaude. Datu hauetan aldiz, ez dugu baja gabeko istripuen inguruko informaziorik.

Lan istripuak Nafarroan	2022	2021
Bajadunak	10.874	10.982
Bajadunak eta larriak	102	79

Salatu behar dugu langileriak soberan ezagutzen duena, hau da, mutualitateek istripu larriak ez dituztela larri bezala kalifikatzen, mutualitateek ahal den heinean ez dutela bajarik agintzen, mutualitateek ahal duten heinean laneko istripu baten sorturiko edozein istripu edo lesio kontingentzia arrunt gisara kalifikatzen saiatzen direla. Faltsutze daturik altuena arazo muskuloeskeletikoetan eta lanak eragindako arazo psikologikoetan dauden.

Beraz, errealitate hau jakinda ere, datu ofizialek erakusten digutena oso larria da eta benetako egoera are larriagoa.

## 5. LANEKO GAIXOTASUNAK

Zalantzarik gabe, laneko gaixotasunena da lan munduan dagoen iruzurrik haundiena. Mutualitateek lanak sortutako gaixotasunak gizarte segurantzara bideratzen dituzte prozeduraz, honela patronalak bere irabaziak bermatzeko, langilerian sorturiko gaixotasunak gizarte segurantzak bere gain hartu behar ditu patronalaren mutualitateek beren tratamendu eta prestazio ardurei bizkar emanaz. Langileriaren eskubideen deusezte hori eta gizarteari egiten zaion iruzur hori kontrolatzeko tresnarik ez dago. Patronala da erabakia hartzen duena.

Honen aurrean, sindikatuok ibilbide juridikoak abiatu behar ditugu gaixotasun horiek laneko gaixotasunak direla aitortzeko eta trabaz beteriko bide luzea izan ohi dugu aurretik. Adibide gisara, prozedura juridiko horietan mutualitateek eramaten dituzten baliabideak eta perituak diru publikoz finantziatuak dira, sistema are gehiago bihurrituaz.

Laneko gaixotasunak EAEn	2022	2021	2020	2019	2018
Bajarekin	1.481	1.340	-	-	-
Baja gabe	1.484	1.360	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.965</b>	<b>2.700</b>	<b>2.390</b>	<b>3.158</b>	<b>3.274</b>

Iruzur horri Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) berak ematen dio dimentsioa egiten duen estimazioaren arabera, izan ere lanak sorturiko heriotza guztien %20a istripuek eragina da, gainerako %80a gaixotasun profesionalek eragina da eta datu hori modu nabarmenean ezkututzen da gizarte segurantzara bideraturik, hain zuzen. Honek heriotzik gabeko gaixotasunen proportzioan ere izango luke islada, baina datu ofizialek ez dituzte benetan gertatzen diren istripu guztiak jasotzen.

OMEren irizpideak jarraituz, istripuz 69 hildako baldin badaude 184 hildako inguru egon beharko lirateke laneko gaixotasunen eraginez. Noski, hildako hauek kontingentzia arrunt gisara daude ezkutatuta.

EAEEn minbizia sortzen duten agenteen 45 parte deklaratu dira. OMEren estimazioen arabera berriz, minbizi guztien %30 eta %40 artean laneko faktoreek sortuak dira. Beraz datuek erakusten digute mutualitateek, gobernuen onespenerekin darabilten jokabide maltzurra.

Laneko gaixotasunak Nafarroan	2022	2021	2020	2019	2018
Bajarekin	548	-	-	-	-
Baja gabe	771	-	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.319</b>	<b>1.276</b>	<b>1.217</b>	<b>1375</b>	<b>1557</b>

- Amiantoak hildakoen erregistroa. ASVIAMIEren arabera, 13 hildako EAEEn 2022an.

2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	AZKEN 10 URTEETAN
14	22	20	27	21	40	36	32	14	13	239

#### -Ipar Euskal Herrian datu ofizialik ez

Lurraldetasunaren aitortza ofizial ezaren beste aurpegi bat da lan osasunaren inguruko datuak ere Akitania zabalean ematen diren datu orokorretan disolbatzea. Frantziako administrazioaren hautu politikoa da aitortza eza, euskal nortasuna ezabatzeko helburuarekin. Ezinbestekoa da lurraldetasuna errespetatzea euskal herritarroi dagozkigun eskubideei bide emateko, beste askoren artean, lan osasunean ere bermeak eskaintzea.

## 6. DATUON ATZEAN EMAKUMEON\* ERREALITATEAREN IKUSEZINTASUNA DAGO

Laneko istripuen ondoriozko datuok aurkeztean emakumeen\* eta sektore feminizatueta osasun galera eta heriotzak ikusezin uzteko arriskuan eror gaitzke berriz ere. Laneko osasunaz ari garenean ere, emakumeon\* errealitatea ikus arazteko saiakera berezitua egin beharrean gaude. Izan ere:

- Sektore feminizatueta gaixotasun profesional gehienak ez daude aitortuta eta ez dira kontuan hartzen; bai zeregin errepikakorrek eta karga-zereginekin lotutakoak eta sistema muskuloeskeletikoan eragin zuzenak dutenak, bai eta aitortu gabeko zaintza lanei lotutako arrisku psikosozial guztiak, osagai emozional oso altuak dituztenak. Estresarekin lotutako gaixotasun mailak ia bi aldiz handiagoak dira emakumeetan\* (gizonekin alderatuta). Hau, aldi berean, bihotzeko gaixotasunekin, muskuloeskeletikoekin, depresioarekin eta akidurarekin lotzen da baina gehienetan gaixotasun arrunt gisa tratatzen dira, patronalen mutualitateetara jotzen dugunean sistematikoki ukatzen baitute gaixotasun horien lan-jatorria.

- 10 urtean, emakumeen\* laneko gaixotasunak % 44 handitu dira eta hori aitortutakoak baino ez dira, badakigulako askoz gehiago direla, baina gertatzen diren prekaritate-egoeragatik, eta patronalen mutualitateek egiten dituzten patologien lan-jatorria ukatzeagatik, errealitatea askoz larriagoa dela jakin badakigu.

Laneko arriskuen balorazioetan ez da kontuan hartzen sexu-genero aldagaia; beraz ustezko irakurketa neutralaren atzean aurkitzen duguna androzentrismoa da. Gizona eredu bezala. Emakumeok\* eta sexu-genero disidenteok nola sartzen garen lan merkatuan eta nola kokatzen garen bertan (lan merkatuaren genero segregazioa dela eta) erabat baldintzatzen du gure osasuna zentzu integral batean ulertuta. Izan lanpostuetan kontuan ez izatea hainbat elementu (mugimendu errepikakorrek, jendeari arreta egitea, zaintzea, zama emozionala...) baita enplegutik kanpo behartuta egotea zaintza lanak egitera... Horrek guztiak gure bizi baldintzak mugatzen dituzte. Eta zenbat ordu egiten dugun lan egunero (merkatuan zein merkatutik kanpo ere) bere ondorioak ditu.

Agian emakumeok\* ez dugu bat batean galtzen bizitza enpleguan (edo ez sektore maskulinizatueta bezainbeste) baina epe luzera egunero galtzen ari gara gure bizitzaren zati bat, gure lan baldintzak askoz kaskarragoak baitira gizonezkoenak baino. Horrek jatorria eta adina eta hainbat zapalkuntza ardatzekin gurutzatuta ere argazki berri bat ematen digu: emakumea\* izatea, jatorri anitzekoa (arrazializatuta zein migratua), aniztasun funtzionalekoa eta pobrea baldin bagara argi dago gure osasuna arriskuan egongo dela beti.

Lan batzuk hil egiten gaituzte, eta beste batzuk ordea ez digute bizitzen uzten.